



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – 2023KO UZTAILA

Uztaila oro har, hilabete lehorra edo oso lehorra izan zen eta beroa, 1981-2010 epe normaleko batezbestekoa baino gradu erdi epelagoa gutxi gorabehera. Nabarmenezkoa da Kantauri isurialdeko intsolazio eskasa, bereziki kostaldean, ohi baino % 23 eguzki ordu gutxiagorekin. Muturreko egoerei dagokienez 7 abisu hori igorri ziren, 3 prezipitazio handiagatik eta 4 muturreko tenperatura oso altuagatik. Aipagarrienak hilaren 6an bota zituen zaparrada handiak izan ziren, zaparradekin batera txingorra egin zuen eta errekorrak hautsi ziren. Leku kaltetuen artean Gasteiz eta Arabako Lautadako beste herri batzuk daude, esaterako Etura edo Ozaeta, kalteak ugariak izan ziren, bai hirian, bai landa-eremuetan, batez ere laboreak kaltetu ziren.

Prezipitazioa

Uztaila oro har, lehorra edo oso lehorra izan zen. Hala ere, nahiz eta euria ohi baino eskasagoa izan zen, zenbait lekutan hilabete hezea izan zen, leku zehatz batzuetan bota zituen zaparrada trumotsuen ondorioz. Zehazki, Vitoria-Gasteiz eta Ozaeta inguruan, Arabako Lautada mendebaldean edo Tobillasen, Valdegovia-Gaubean.

Trumoi-ekaitzen ondorioz hilabetean pilatutako euriaren banaketa espaziala ohiko banaketatik asko aldendu zen. Balio altuenak han-hemenka sakabanatu ziren: Gipuzkoa ekialdean, bertan aurkitzen da 100 mm baino gehiago pilatu zen estazio bakarra (Eskas 126.4 mm, Añarbe 64.7 mm), kostaldean (Oiartzun 78 mm, Matxitxako 66.7 mm, Behobia 63.4 mm) eta Arabako Lautadako mendebaldean (Ozaeta 75.3 mm, Arkauti 73.6 mm). Balio baxuenak Durangaldean, Arratia-Nerbioi eskualdean eta Gorbeia mendiaren inguruan jaso ziren, bertako hainbat lekutan ez ziren 10 mm pilatu, ohikoa denaren % 20ra ere ez ziren iritsi (Iurreta 4.9 mm, Gorbea 6.4 mm, Orozko 6.5 mm, Areta 6.9 mm), antzeko egoera izan zen Araba hegoaldean (Moreda 4.4 mm, Páganos 6.9 mm, Zambrana 7 mm, Navarrete 7.9 mm).

Kostaldean euri-egunak ohiko balioetara hurbildu ziren, 8-9 egun inguruan; ez aldiz barnealdean, bertan 2-3 euri-egun soilik izan ziren.

Gertaera bat nabarmendu beharra dago: hilaren 6ko arratsaldeko zaparrada trumotsuak. Arabako Bailaretan, Lautadan eta Mendialdean intentsitate handiko zaparradak neurtu ziren (Kanpezu 27.4 mm/h, Arkauti 26.7 mm/h, Ozaeta 26.6 mm/h, Etura 20.9 mm/h, Tobillas 20.6 mm/h, Ilarduia 19.2 mm/h), zaparradekin batera 5 cm inguruko txingor aleak bota zituen eta Vitoria-Gasteizen kalte ugari eragin zituen, horrez gain, landa eremuetan kalteak eragin zituten, batez ere laboreetan. Etura eta Ozaetako estazioetan, Arabako Lautadan, serie historikoetako hilabeteko errekorrak gainditu ziren ordubetean eta hamar minutuan pilatu zen prezipitazioarekin. Gainera, gertaeraren amaieran egunean pilatutakoak apartekoak izan ziren: Arkautin, Vitoria-Gasteizen kanpoaldean,



66.9 mm, bere serie historikoko errekorra; Ozaeta 77 mm eta Etura 43.3 mm, serie historikoetako uztailleko errekorrak.

Hurrengo egunean, egoera berdintsua izan zen eta zaparrada trumoitsuak mendebaldean bota zituen, hala ere, gutxiago bota zuen, Enkarterrietan pilatutakoa salbu (Zalla 21.1 mm/h).

Hilaren 27an arratsaldean, Iberiar sistema iparraldean berriro zaparrada trumoitsuak bota zituen, bereziki Araba erdialdean eta mendebaldean eragina izan zuten (Tobillas 24.3 mm/h, Abetxuko 7.5 mm/h, Orduña 5 mm/h).

Azkenik, kostaldean hilaren 24an eta 25ean egindako euria aipatu behar da, Atlantiko fronte hotz bat igaro zen eta egun horietan 27an baino euri gehiago pilatu zen (Eskas 18.8 mm, Behobia 15.3 mm, Oiartzun 9.5 mm, Matxitxako 7.5 mm hilarean 24an; Oiartzun 26.4 mm, Eskas 25.8 mm, Behobia 19 mm, Mungia 15.1 mm hilaren 25ean).

Taula 1: Azken urteetan uztailen pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	15.4	4.2	32.3	36.0	45.7	24.6	32.0	33.4	26.2	60.8
Lasarte	28.5	24.5	77.1	41.8	92.7	80.0	64.6	68.0	48.8	116.4
Arrasate	14.3	16.3	17.9	15.3	43.4	54.5	34.6	39.9	20	101.3
Abetxuko	27.5	14.0	0.6	14.7	28.8	64.1	10.9	9.3	20.9	37.9
Párganos	6.9	4.9	0.7	7.6	23.2	59.6	31.8	6.9	34.9	20.9

Temperatura

Uztailleko batez besteko temperatura beroa izan zen. Batez besteko temperatura kostaldean 20-21 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 19 °C-ak gainditu ziren, hau da, 1981-2010 batezbesteko normala baino 0.5 °C inguru altuagoa izan zen. Mende honetako beste urteekin alderatuz, balio horiek erdian koka daitezke, 2006ko eta 2013ko oso beroenetatik urrun.

Temperaturaren bilakaerari dagokionez, lehenengo hamabostaldian egun beroak gailendu ziren. Hilaren 15etik aurrera, egun nahiko hotz batzuk izan ziren, egun beroen artean.

Hala, bigarren hamabostaldian barnealdeko minimoak pixkanaka-pixkanaka jaisten joan ziren eta balio baxuenak hilaren 23an neurtu ziren (Pagoeta 7.4 °C, Navarrete 8.3 °C, Otxandio 8.4 °C, Salvatierra 8.5 °C, Tobillas 8.9 °C).

Kostaldean minimoak nahiko egonkorak izan ziren hilabeteen, 15-19 °C artekoak. Hilaren 8tik 11r artean oso epelak izan ziren, eta azken egun horretako



goizaldean leku batzuetan gaua tropikala izatera iritsi zen (Almiken, Oletan, Berriatua, Behobian, Higerren).

Tenperatura maximoei dagokienez, muturreko tenperatura oso altuengatik 4 abisu igorri ziren, oro har, beroa noizean behin egin zuen eta lurraldean eragin ezberdinak izan zituen.

Lehenengo egun beroa hilaren 7a izan zen. Ordura arte maximoak ez baitziren 30 °C-ra hurbildu. Gainera beroa ez zen denera zabaldu, soilik kostaldean, Enkarterrietan eta Arabako Kantauri isurialdean izan zuen eragina (Sodupe-Kadagua 35.1 °C, Oleta 34.4 °C, Arteaga 34.1 °C, Gardea 33.9 °C, Berriatua 33.8 °C, Oiartzun 33.7 °C). Gainerako lekuetan trumoi-ekaitzek tenperaturen igoera gelditu zuten.

Hilaren 14an denean egin zuen beroa eta hilabeteko egunik beroena izan zen. Mendi inguruetan izan ezik, EAE osoan 30 °C-ak gainditu ziren, 35 °C-ak hainbat lekutan (Gardea 38 °C, Alegia 38 °C, Orozko 37.6 °C, Sodupe-Kadagua 37.2 °C, San Prudentzio 37.2 °C, Estanda 37.2 °C, Zanzbrana 37 °C). Eguerditik aurrera haizeak iparraldera egin zuen eta, barnealdera zabaldu ahala, pixkanaka-pixkana beroa arinduz joan zen.

Hilaren 18an ekialdeko fluxuak Araba ekialdean goizaldetik tenperaturaren igoera bultzatu zuen. Beroa batez ere Mediterraneo isurialdean egin zuen eta Ebro ondoko eskualdean muturreko tenperatura oso altuagatik abisu horia igorri zen (Zanzbrana 38.4 °C, Páganos 37.4 °C, Moreda 36.9 °C, Kanpezu 36.9 °C, Ilarduia 35.7 °C, Nanclares 35.6 °C, Espejo 35.4 °C). Kostaldean haizea ipar-mendebaldetik finkatu zen eta tenperatura balio suabeetan gelditu zen. Itsasaldeko fluxu hura eguerditik aurrera Mediterraneo isurialdera hedatu zen, tenperaturaren beherakada azkarra eraginez.

Hilaren 24an eta 25ean tenperatura maximoak oso bestelakoak izan ziren, izan ere garairako oso baxuak izan ziren, 20 °C inguruko batezbestekoekin.

Azkenik, kostaldean intsolazioa ohikoa dena baino txikiagoa izan zen, % 23 inguru txikiagoa hain zuzen ere, barnealdean, aldiz, ohi baino apur bat altuagoa izan zen. Hiriburuz hiriburu, Bilbon 161 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 135 eta Gasteizen 252.

Taula 2: Uztailean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	21.2	22.6	19.4	20.5	21.0	21.8	19.8	21.1	21.6	20.3
Lasarte	20.1	21.2	18.7	20.0	20.3	21.2	19.8	19.8	20.8	19.2
Arrasate	19.5	21.0	18.4	18.9	19.8	20.1	19.4	19.0	20.1	18.2
Abetxuko	19.2	20.5	18.0	18.9	19.9	20.1	19.5	19.3	20.7	18.5
Páganos	21.7	23.3	20.3	21.1	21.9	20.9	21.1	20.8	22.3	19.4

Haizea

Uda garaiko hilabeteetan ohikoa den bezala, tokian tokiko haizea izan zen nagusi, arratsaldeetan lehenengo edo laugarren koadranteakoa. Noizean behin bigarren koadrantea haizea ibili zen, bereziki Araba ekialdean eta goizetan. Hirugarren koadrantea haizearik apenas ibili zen.

Haizearen indarra oro har txikia izan zen, gradiente isobarikoa oso txikia izan baitzen. Hala ere, egunero bolada gogorrak izan ziren, bai haizeguneetan, bai Araban haizeguneak ez diren tokietan. Hilabetearen lehenengo hamabostaldian neurtutako haize-bolada indartsuenak haizeguneetan neurtu ziren, eki/hego-ekialdeko haizearekin, aipagarriena hilaren 14ean Orduñan neurtutakoa (71.3 km/h).

Haizeguneak ez diren lekuetan eki/hego-ekialdeko haize-bolada indartsuak neurtu ziren. Araban ipar-osagaiko haizeak traba egin zuen, 60 km/h-tik gorako bolada batzuekin Ilarduian, Subijanan edo Moredan. Ekaitz-guneetan ere bolada batzuk nabarmentzekoak izan ziren Araban hilaren 6ean (Subijana 69.8 km/h, Arkauti 68.1 km/h). Haizeguneak ez diren tokietan hilabeteko haize-bolada indartsuena hilaren 27an ekaitz-guneetan neurtu zen, Navarreten (83.6 km/h).

Hilaren 24an eta 25ean, segidan igaro ziren bi fronteren eraginez mendebal/ipar-mendebaldeko haizea indartu egin zen eta haizeguneetan hilabeteko haize-bolada indartsuenak kostaldean neurtu ziren (hilaren 24an: Matxitxako 73.0 km/h, hilabeteko haize-bolada indartsuena haizeguneetan, Punta Galea 71.3 km/h; hilaren 25ean: Jaizkibel 70.2 km/h). Hilaren 24an haizeguneak ez diren tokietan ere haize-bolada gogorrak neurtu ziren, Araban 60 km/h-tik gorakoak (Ordunte 63.9 km/h, Paganos 63.1 km/h eta Moreda 60.7 km/h).

Analisia

Uztailaren 1etik 5era

Hilabetearen hasiera freskoa izan zen, Azoreetako antizikloiaren menpe hasi zen eta ipar-osagaiko haizea nagusitu zen, batez ere Kantauri isurialdean, bertan behe-hodeiak gailendu ziren eta euri txikia egin zuen. Alabaina, penintsulan ohikoa den bero-depresioa nagusitu zen eta Araba hegoaldean giroa apur bat beroa izan zen.

Uztailaren 6tik 7ra

Hilaren 6an eta 7an eguraldia nabarmen ezegonkortu zen. Penintsularen hegoaldea eta barnealdea bero-depresioen menpe egon ziren, mendebal/hego-mendebalko fluxua ahalbidetuz, eta Mediterraneoko fluxuak sartzean penintsula ipar-ekialdean konbergentzia lerro bat sortu zen. Depresioak goi-latitudeetan barrena mugitu ziren, Britainiar uharteen mendebaldean, eta iberiar penintsularen mendebaldean uhin laburreko aska bat kokatu zen. Ebro ibarretik azalean

sartzen zen hezetasunaren eta goi-geruzako korronteari loturiko zizailaduraren ondorioz zaparrada trumoitsuak bota zituen Iberiar sisteman eta EA Eren barnealdean arratsaldeetan. Txingorra aipagarria izan zen barnealdean, batez ere hilaren 6an Vitoria-Gasteizen eta Ozaetan (izan ere 5 cm inguruko txingor aleak behatu ziren). Hilaren 7an 850 hPa-eko mailan tenperatura 20 °C-koa izan zen eta Kantauri isurialdean tenperatura maximoak 35 °C-ra igo ziren.

Uztailaren 8tik 9ra

Eguraldiak egonkortzera egin zuen, giroa eguzkitsua izan zen eta tenperatura ohi baino altuagoa izan zen. Irlanda mendebaldean depresio hotz bat kokatu zen eta Afrika iparraldean geopotenzial altuko eremu bat zegoen, ondorioz penintsulatik hego-mendebaldeko fluxua iritsi zen.

Uztailaren 10etik 14ra

Hilaren 10etik aurrera, penintsula, bereziki ekialdea, Afrika iparraldetik zabaltzen gailur indartsu baten menpe geratu zen, ardatza Mediterraneo mendebaldean zuen. Horrek maila baxuetan isla izan zuen, 850 hPa-eko mailan gailur-termiko batekin, ondorioz hainbat egunetan tenperatura 28-30 °C-ra hurbildu zen. Aldi berean, penintsula hegoaldeko zenbait lekutan tenperatura 44 °C-ra iritsi zen. Gurean iparraldeko haizeak aire masa beroa geldiarazi zuen eta beroa soilik Ebro ondoko eskualdean egin zuen. Ipar partean behe-hodeiak nagusitu ziren eta euri txikia egin zuen, leku gehienetan hilaren 12an eta 13an. Salbuespena hilaren 14a izan zen, Britaniar uharteen hego-mendebaldean zegoen depresio-sistema batek hegoaldeko haizearen sarrera eragin zuen eta tenperatura maximoak nabarmen igo ziren denean.

Uztailaren 15a eta 16a

Hilaren 15etik aurrera iparraldetik depresioak agertu ziren, Britaniar uharteen gainean presioa 984 hPa-era jaitsi zen, horiei loturik hainbat fronte izan ziren. Hilaren 15ean eta 16an fronte horietako batek Kantauri zeharkatu zuen, eguraldiaren aldaketa eraginez. Ipar partean hilaren 15ean euria egin zuen eta tenperaturak behera egin zuen (850 hPa-eko mailan ipar partean tenperatura 7 °C-ra jaitsi zen). Ebro ondoko eskualdean beroak jarraipena izan zuen.

Uztailaren 17etik 23ra

Uda garaiko egoera izan zen berriro. Antizikloia ziri moduan sartu zen Kantaurira eta penintsula barnealdean eta hegoaldean bero-depresioa nagusitu zen. Ondorioz, Kantauri isurialdean iparraldeko haizea nagusitu zen, behe-hodeien tarteekin, zirimiria apur bat egin zuen eta tenperatura suabea izan zen. Mediterraneo isurialdean, aldiz, hodeitza txikiagoa izan zen eta hilaren 18an eta 23an tenperaturak gora egin zuen.

Uztailaren 24a eta 25a

Hilaren 23an antizikloia aldentu egin zen eta Britaniar uharteetan zegoen depresioari loturiko fronte hotz bat iritsi zen; horren ostean, aire masa hotz bat iritsi zen, ipar partean euria egin zuen eta ekialdean pilatutako euri esanguratsua izan zen. Tenperaturak nabarmen egin zuen behera eta garairako hotz egin zuen, Kantauri isurialdean maximoak 16-17 °C ingurukoak izan ziren.



Uztailaren 26tik 31ra


Hilabeteko azken egunak Britainiar uharteetatik igaro ziren depresioek baldintzatu zituzten. Kantaurira Azoreetako antizikloia ziri moduan sartu zen. Alabaina, ñabardura batzuk azpimarratu behar dira. Hilaren 28an eta 29an Azoreetako antizikloia hegoalderantz aldendu zen, Kantauri isurialdera fronteak iritsi ziren, hodeiak ugaritu eta euria egin zuen. 500 hPa-eko mailan zirkulazioa zonala izan zen, hilaren 27an izan ezik, orduan uhin labur bat igaro baitzen trumoi-ekaitzak eraginez.

Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2023ko uztailako balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.





Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak.
Zorrotza	21.2	25.2	33.2	17.9	16.0	0	15.4	6.1	6
Lasarte	20.1	24.5	36.4	16.3	14.3	0	28.5	5.2	9
Arrasate	19.5	25.5	36.6	15.0	12.1	0	14.3	7.0	4
Abetxuko	19.2	27.6	35.9	13.0	10.0	0	27.5	18.8	2
Páganos	21.7	29.7	37.4	15.1	12.2	0	6.9	3.7	2

Eguneko tenperatura eta prezipitazioaren grafikoak





Prezipitazioaren jokaera

Behatutako prezipitazioa
Precipitación observadaPrezipitazio normala
Precipitación normalPrezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normalPrezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal

Muturreko balioak

Uztaileko tenperatura maximo absolutua.

Izena	Aurreko errekorra XXI. mendea (°C)	Data	Aurtengo errekorra XXI. mendea (°C)	Data	Estazioa jarritako urtea
Arkauti	36.1	04/07/2018	66.9	06/07/2023	1992
Etura	21.8	15/07/2018	43.3	06/07/2023	2012
Ozaeta	32.8	28/07/2001	77	06/07/2023	1999

Uztaileko prezipitazio maximoa ordubetea.

Izena	Aurreko errekorra XXI. mendea (mm)	Data	Aurtengo errekorra XXI. mendea (°C)	Data	Estazioa jarritako urtea
Etura	18.1	15/07/2018	20.9	06/07/2023	2012
Ozaeta	18.6	27/07/2006	26.6	06/07/2023	1999

Uztaileko prezipitazio maximoa 10 minutuan.

Izena	Aurreko errekorra XXI. mendea (mm)	Data	Aurtengo errekorra XXI. mendea (°C)	Data	Estazioa jarritako urtea
Etura	10.5	15/07/2018	12.5	06/07/2023	2012
Ozaeta	11.1	12/07/2011	12.7	06/07/2023	1999

Urte osoan eguneko prezipitazio maximoa.

Izena	Aurreko errekorra XXI. mendea (mm)	Data	Aurtengo errekorra XXI. mendea (°C)	Data	Estazioa jarritako urtea
Arkauti	55.4	28/11/2021	66.9	06/07/2023	1992



Muturreko egoerak

Uztailean 7 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 3 prezipitazio handiagatik eta 4 tenperatura oso altuagatik.

- Goi-geruzetako ezegonkortasuna eta egunean zehar pilatutako beroaren ondorioz, hilaren 6an eta 7an trumoi-ekaitzak izan ziren. Hilaren 6an trumoi-ekaitzak egunaren erdialdeko orduetan sortu ziren. Lehenik Arabako Lautadako ekialdean eta Arabako Mendialdean eragina izan zuten, eta zenbait lekutan prezipitazioa handia izan zen, bereziki Ullibarri-Ganboa urtegiaren ekialdean, bertan ordubete luze iraun zuten zaparrada trumoitsuek. Hala ere, eguneko trumoi-ekaitz aipagarriena ordu batzuk beranduago gertatu zen. Araba mendebaldetik sartu zen eta lehenik Gaubean zaparradak bota zituen eta txingorra egin zuen. Horren ostean, ekialderantz mugitu zen, beste trumoi-ekaitzak ez bezala, izan ere besteak ipar-ekialderantz mugitu ziren. Hala, Arabako Lautada mendebaldetik igaro zen eta azkenik Vitoria-Gasteizen indartu egin zen; zaparrada handiak bota zituen eta txingor ertain-handia bota zuen. Txingorrak Vitoria-Gasteizen hainbat arazo sortu zituen, bereziki ibilgailuetan, beirak eta karrozeriak hautsi zituen, etxabeak eta lokalak urak hartu zituen, eta leihoetan kalteak eragin zituen. Aldi berean, beste trumoi-ekaitz batek Arabako Mendialdean zaparrada handiak utzi zituen eta Kanpezun ia oso handiak izan ziren (27.4 mm/h, 14.8 mm/ 10 minutuan). Iluntzean trumoi-ekaitzek gutxitzera egin zuten, hala ere, egunaren amaieran oraindik zaparrada trumoitsu batzuk bota zituen Araba hegoaldean.

Hilaren 7an, hegoaldeko haizea gailendu zen eta Kantauri isurialdean bero handia egin zuen, ondorioz, arratsaldearen hasieran trumoi-ekaitz batzuk bota zituen Enkarterrietan, eta zenbait lekutan zaparradak handiak izan ziren (Zalla 21.1 mm/h). Ondoren, trumoi-ekaitz horiek ipar-ekialdera mugitu ziren, baina Bilbo Handira iristerakoan desegin ziren, Trianoko mendia igaro ostean. Gero Araba hego eta hego-ekialdetik beste trumoi-ekaitz bat igaro zen eta zaparrada ertain batzuk bota zituen. Arratsaldearen amaierarako trumoi-ekaitz guztiak desegin egin ziren.

Bi egun horietan botatako zaparradek eta txingorrek aseguratutako 7.643 hektareatan ezbeharrak eragin zituzten Araban (Agrosegurok emandako behin behineko datua, uztailak 10), gertakari horretan Estatu mailan ezbeharrak jasan zituen eremu zabalena izan zen. Ezbehar handienak neguko laboreetan izan ziren, oraindik uzta bildu gabe baitzegoen, baina beste laboreetan ere kalteak izan ziren, esaterako Arabako Errioxako mahastietan.



Estazioa	Prezipitazioa hilak 6 (mm/10 min)	Ordua UTC
Kanpezu	14.8	18:10
Ozaeta	12.7	18:50
Etura	12.5	18:50
Tobillas	12.4	17:30
Arkauti	11.9	18:30

Estazioa	Prezipitazioa hilak 6 (mm/h)	Ordua UTC
Kanpezu	27.4	18:40
Arkauti	26.7	17:00
Ozaeta	26.6	16:20
Etura	20.9	19:30
Tobillas	20.6	18:10
Ilarduia	19.2	15:50

Estazioa	Prezipitazioa hilak 6 (mm)
Ozaeta	77
Arkauti	66.9

Estazioa	Prezipitazioa hilak 7 (mm/h)	Ordua UTC
Zalla	21.1	14:20

Osteguna, hilak 6: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Gipuzkoako barnealdean eta Araban 15etatik 21etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 7: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 6an tenperatura 30 °C-ren azpitik geratu zen, izan ere, egunaren erdialdeko orduetan trumoi-ekaitzak izan ziren, zerua hodeitsu geratu zen eta tenperaturen beherakada eragin zuen. Hala ere, zaparrada trumoitsuak iritsi aurretik Araba hegoaldeko zenbait lekutan maximoak 30 °C-ra hurbildu ziren (Zambrana 29.8 °C). Hilaren 7an trumoi-ekaitzak ez ziren hain orokorrak izan eta gainera, geroago izan ziren, ondorioz, tenperaturak, hegoaldeko haizeak lagunduta, igotzeko denbora izan zuen. Hala, Kantauri isurialdean tenperatura maximoek 30 °C-ak gainditu zituzten, eta kostaldeko zenbait lekutan bereziki beroak izan ziren, hala ere, tenperatura altuena Sodupe-Cadaguan neurtu zen (35.1 °C).

Estazioa	Tenperatura maximoak, hilak 7 (°C)
Sodupe-Cadagua	35.1
Oleta	34.4
Arteaga	34.1
Berriatua	33.8
Oiartzun	33.7
Miramon	33.5



Behobia	33.5
Zorrotza	33.1
Lasarte	32.2
Abetxuko	28.8

Zona	Temperatura maximoak, hilak 7 (°C)
Kostaldea	32.1
Kantauri barnealdea	30.8
Iragate-zona	28.2
Ebro ondoko eskualdea	27.8

Osteguna, hilak 6: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik kostaldean 13etatik 18etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 7: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik kostaldean 13etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 14an hodei gutxi izan zenez eta egunaren lehen zatian hegoaldeko haizea gailendu zenez eguna oso beroa izan zen zonalde guztietan. Hala ere, eguerditik aurrera haizeak iparraldera egin zuen, kostaldetik hasita, eta arratsaldeak aurrera egin ahala temperatura jaitsiz joan zen. Zonalde guztietan maximoek 30 °C-ak gainditu zituzten eta Kantauri isurialdeko bailaretako zenbait lekutan 38 °C-ra heldu ziren, bai mendebaldean (Gardea), nahiz ekialdean (Alegia). Goiz sartu zuen iparraldeko haizea bolada gogorrekin ibili zen, eta goizean hego-haizearekin neurtutako haize-boladak gainditu zituen. Arratsaldean neurtutako iparraldeko haize-boladak bereziki Araban indartsuak izan ziren (Ilarduia 65.3 km/h, Subijana 62.1 km/h, Nanclares 60 km/h), baina Kantauri isurialdeko zenbait lekutan ere nabaritu zen (Sodupe-Cadagua 47.3 km/h). Arratsaldean temperaturak behera egin zuen arren, Arabako Errioxako toki batzuetan iluntzean oraindik 30 °C-tik gora zegoen temperatura (Paganos 30.2 °C 22etan ordu lokala).

Estazioa	Temperatura maximoak, hilak 14 (°C)
Gardea	38
Alegia	38
Saratxo	37.7
Orozko	37.6
Sodupe-Cadagua	37.2
San Prudentzio	37.2
Estanda	37.2
Zambrana	37
Lasarte	36.4
Abetxuko	35.9
Zorrotza	33.2

Zona	Temperatura maximoak, hilak 14 (°C)
Kostaldea	33.3



Kantauri barnealdea	35.6
Iragate-zona	35.1
Ebro ondoko eskualdea	36.4

Ostirala, hilak 14: Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik barnealdean 13etatik 19etara ordu lokala.

- Hilaren 18an goizean Araba ekialdean eki/hego-ekialdeko haizea ibili zen, bolada gogor batzuekin, ondorioz goizean goizetik zonalde horretan tenperatura oso altua izan zen. Ilarduiako estazioan goizaldean tenperatura oso azkar igo zen eta egunsentian 25 edo 26 °C ingurukoa izan zen. Goizean barnealdean tenperaturak goranzko bidean jarraitu zuen, ez ordea kostaldean, bertan laster haizea ipar-mendebaldetik finkatu zen eta tenperatura balio suabeetan geratu zen. Mediterraneo isurialdean egunaren erdialdeko orduak oso beroak izan ziren, baita Kantauriko bailaretako zenbait lekutan ere, hala ere, bertan ere, iparraldeko haizearen sarrerak tenperaturaren igoera gelditu zuen. Eguerditik aurrera Araba iparraldean haizea iparraldetik finkatuz joan zen eta nabarmen indartu zen (Subijana 65.6 km/h-ko 16etan ordu lokala, Ilarduia 62.8 km/h-ko 16:30ean ordu lokala). Iparraldeko haizea sartu ahala tenperatura azkar jaitsi zen; adibidez, Abetxukon ordubetea tenperatura 34 °C-tik 28 °C-ra jaitsi zen. Arratsaldeak aurrera egin ahala haizearen aldaketa Araba hegoaldera zabaldu zen; Arabako Errioxan 17etan ordu lokala gertatu zen. Bertan ere tenperaturak behera egin zuen haizea aldatu ostean, baina Paganosen gauerdia arte 30 °C-tik gorakoa izan zen, ez ordea Moredan, 20etan ordu lokala tenperatura 25 °C-koa baitzen.

Estazioa	Tenperatura maximoak, hilak 18 (°C)
Zambrana	38.4
Páganos	37.4
Kanpezu	36.9
Moreda	36.8
Ilarduia	35.7
Nanclares	35.6
Trebiño	35.5
Espejo	35.4
Albaina	35.2
Salvatierra	35.1

Zona	Tenperatura maximoak, hilak 18 (°C)
Kostaldea	23.3
Kantauri barnealdea	25.9
Iragate-zona	33.5
Ebro ondoko eskualdea	37.4

Asteartea, hilak 18: Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik Ebro ondoko eskualdean 12etatik 17etara ordu lokala.



- Hilaren 27an bere barnean aire hotza zuen aska batek penintsula iparraldea zeharkatu zuen eta egunaren erdialdeko orduetan barnealdean egiten zuen beroarekin batera ezegonkortasuna areagotu egin zen eta arratsaldean zaparrada trumoiatsuak bota zituen, bereziki Araba erdialdean eta mendebaldean. Arratsaldearen hasieran, lehenik, trumoi-ekaitzak Arabako Errioxan izan ziren, jarraian, beste trumoi-ekaitz batzuk Araba mendebaldetik sartu ziren eta zaparrada handienak bertan bota zituen (Tobillas 24.3 mm/h). Zaparrada hauek ekialdera mugitu ziren eta Gasteizen eragina izan zuten (6.7 mm/30 min). Araba ipar-mendebaldean beste trumoi-ekaitz batzuk izan ziren eta gero iparraldera mugitu ziren, Bizkaian barna sartu ziren eta gertakaria arratsalde-gau partean amaitu zen, Bizkaiko ekialdeko kostaldean bota zituen zaparrada-trumoietsuekin.

Estazioa	Prezipitazioa hilak 27 (mm/10 min)	Ordua UTC
Tobillas	9.6	15:00
Abetxuko	3.7	16:00
Abetxuko-CHE	3.6	15:50

Estazioa	Prezipitazioa hilak 27 (mm/h)	Ordua UTC
Tobillas	24.3	15:50

Osteguna, hilak 27: Abisu Horia prezipitazio handiagatik barnealdean 15etatik 21etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <https://www.euskalmet.euskadi.eus/dibulgazioa/estilo-gidaliburua/>

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.